



**ZUZENDARITZA BATZORDEAREN 03/12-06 AKORDIOA, 2006KO
ABENDUAREN 14KOA, ORDEZKAPENAK EGITEKO ETA PLAZA HUTSAK
BETETZEKO ARAUDI BERRIA ONARTZEN DUENA**

1.- ZERRENDETAN SARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

Ikasketa-tituluak:

- a) HAURRESKOLAK Partzuergo Publikoaren plaza hutsak betetzeko zerrendetan sartzeko, nahitaezkoa izango da honako titulu hauetakoren bat izatea, horiek emateko eskubideak ordainduta izatea edo horiei dagozkien gaitasun- edo homologazio-agiriak izatea: haur-hezkuntzako irakasle-titulua; haur-hezkuntzako goi-mailako teknikaria; haurtzaindegietako teknikari espezialista.
- b) Hezkuntzako 2. hizkuntza-eskakizuna, EGA edo horien baliokideren bat izatea (informazio gehiago nahi izanez gero, ikus urriaren 6ko 263/1998 Dekretua, 202 zenbakiko EHAA, 1998ko urriaren 23koa).

Zerrendak zabaltzen direnean, horietan sartzeko, hautagaiek derrigorrez bete beharko dituzte aurrez adierazitako bi baldintzak (ikasketa-titulazioa eta euskara-agiria izatea).

2.- BAREMAZIO-IRIZPIDEAK:

Atal honetan ezarritako baremazio-irizpideek ez dute atzeraeragineko ondoriorik izango, eta akordio honetatik aurrera egindako deialdietan aplikatuko dira.

Lan-esperientzia:

- a) Haurreskolak Partzuergoko haurreskoletan hezitzaile-lanetan. 0,01 puntu lan egindako egun bakoitzeko.
- b) Haur-eskoletan edo haurtzaindegietan haur-hezkuntzako hezitzaile, haur-hezkuntzako irakasle edo antzeko lanetan: 0,15 puntu 3 hilabeteko; gehienez, 4 puntu. Ez dira aintzat hartuko 3 hilabetetik beherako epeak baremazio bakoitzean. Hala ere, epe txikiago horiek metatu ahal izango dira, antzeko beste epe batzuekin batera kontuan hartzeko gerora zerbitzuak berriz barematzen direnean, deialdi bakoitzean ezartzen denaren arabera.

Horiek zenbatzeko, hiruhilekoak 90 egunekoak izango dira.



Lanaldi partzialean egindako lanek, puntuazioari dagokionez, lanaldi osokoen baremazio berdina izango dute.

Garairen batean leku bat baino gehiagotan egin bada lan, aldekoena soilik hartuko da kontuan.

Urtez urte berriro barematuko dira zerbitzuak.

Zerrendetan dauden hautagaiak ez badira nahikoak unean-unean izan daitezkeen ordezeko-premiak asetzeko, zerrendak irekita uzteko aukera izango da, beste hautagai batzuk sar daitezzen. Zerrenda ireki horiek honela antolatuko dira: eskaerak eta dokumentazioa behar bezala aurkeztu deneko ordena. Zerrendak urtero barematuko dira, hautagai guztiak aintzat hartuz.

Urtero, baremazioa berrikusteko garaian, zerrendetan aldaketak egiteko aukera emango zaie hautagaiei. Horretarako, dagokion eskaera aurkeztu beharko dute. Horiek horrela, lanaldi osoko edo/eta partzialeko zerbitzuak emateko aukera izango da, lurralderen batean edo lurralde bat baino gehiagotan.

ZERRENDAK ERABILTZEKO MODUA

3.- ORDEZKAPENAK EGITEA:

Ordezkapenen bat egin behar bada, dagokion zerrendara joko da, eta zerrendan eskuragarri dagoen lehenengo pertsonari eskainiko zaio ordezkapena. Ordezkapen bat baino gehiago egin behar bada eta horiek bateragarriak badira, pertsona berari eskainiko zaizkio, denak batera.

3.1.- Hauek izango dira uko egiteko arrazoiak, zerrendetatik kanpo geratu gabe:

- a) Aldi baterako ezintasuna (ABE), gaixotasun arruntagatik edo lanekoa ez den istripuagatik.
- b) Aldi baterako ezintasuna, lan-istripuagatik edo lanbidezko gaixotasunagatik.
- c) Amatasuna: amaren kasuan, eta ukoa haurdunaldiko zazpigarren astearen eta erditzearen ondorengo hemezortzigarren astearen artean egiten bada, edo haurdunaldian arriskua egonez gero.



Ama hiltzen bada, aitak uko egin ahal izango die ordezkapenei, erditzea gertatu eta ondorengo hemezortzi asteetan.

Amak eta aitak lan egiten badute, aitak hilabete batez uko egiteko aukera izango du. Epe hori semea edo alabaren jaiotza-egunetik hasiko da kontatzen.

d) Ordezkapenen aldi-baterako etena eska dezakete ordezkoek, seme-alabak zaintzeko, semeak edo alabak hiru urte egin arte. Eskatera hori eginez gero, zerrendetan eutsiko zaie hautagaiei, ez besterik; baina semeak edo alabak hiru urte egitean, itzuli egin beharko dute. Beti izango da zerrendetara lehenago itzultzeko aukera. Itzultzea eskatzen ez badute, hautagaiak zerrendatik kanpo geldituko dira.

e) Senideen hospitalizazioa edo gaixotasun larria edo heriotza (2. maila arteko odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko senideak). 2. maila artekoak badira, ukoak bi eguneko muga izango du, eta gaixoak ezkontidea, bikotekidea edo seme-alaba badira, ez du mugarik izango. Mediku-ziurtagiri bidez kreditatu beharko da gaixotasunaren larritasuna, eta agiri horretan bertan argi eta garbi adierazi beharko da zer datatan gertatu den gaixotasun hori. Eta gaixoak ezkontidea, bikotekidea edo seme-alaba badira, jakinarazi egin beharko da hori amaitzen denean. Ukoaren bi eguneko epea hirura handituko da gaixotasun larria edo heriotza bizilekutik 150 kilometro baino gehiagora gertatu bada. 2. mailako senideen gaixotasun larria eta justifikatua azalduz gero, ezingo da arrazoi hori bera berriz azaldu (justifikatzen bada ere), 30 egun jarraian pasatu arte.

f) Sei urte bitartekoen adopzioa, edo etxean hartzea, dela adopzio aurrekoa dela behin betirakoa, uko egitea adoptatu edo etxean hartu eta hurrengo edo aurreko hemezortzi aste baino lehen egiten bada. Epe hori bi aste luzatu daiteke haur bakoitzeko, haur bat baino gehiago adoptatu edo hartzen bada. Epe guzti horiek etxean hartzeko ebazpen administratiboa edo judiziala, edota adopzioa ematen duen ebazpen judiziala egiten denetik edo egin aurretik hasiko dira kontatzen.

Hemezortzi asteko ukoa egin ahal izango da, halaber, sei urtetik gorako haur bat adoptatzen edo etxean hartzen bada, baldin eta gutxituak edo minusbaliatuak badira, edota, egoera eta esperientzia pertsonalagatik edo atzerritik datorrelako, gizartean edo familian sartzeko arazoak badituzte (egoera hori gizarte-zerbitzu eskudunek ziurtatu beharko dute).

g) Ezkontza, ezkondu aurreko edo ezkondu ondorengo 20 egutegiko egunen barruan egiten bada ukoa.



h) Askatasun-gabetzea, askatasun-gabetzea dakarren kondena-epaia ematen ez den bitartean.

i) Ordezkapena egin behar den garaian indarreko kontratu batean pean izatea.

Uko egiteko arrazoi justifikatua uko egin ondorengo 5 astegunetan justifikatu beharko da, indarrean dagoen kontratua bidalita. Bidali ondoren, lan egiteko ukoa mugagabetzat hartuko da, Partzuergoari jakinarazi arte uko egiteko arrazoa bukatu dela. Gerora arrazoi beragatik egiten bazaie uko kontratazioei, indarreko kontratu desberdin bat aurkeztu beharko da. Hurrengo ikasturterako lan egiteko egoerara itzuli ahal izateko baremazio epean aukera izango dute, horretarako dagoen klausula betez gero.

j) Hezkuntza-sailak, IVApek edo beste autonomia-erkidego batzuetako hezkuntza-administrazioak antolatutako ikastaroren batean parte hartzea, lanarekin bateraezinak badira.

k) Ikasketak edota praktikak egiten aritzea. Ikasketak egiten ari bada, ikasturte osoan egin ahalko zaio uko, eta matrikula bidez egiaztatuko da. Praktikak egiten ari bada, ukoa praktika-aldian egin ahal izango da, eta aldiak egiaztagirian adierazita egon beharko du.

l) Hezkuntza-sistemarekin zuzenean lotutako beka edo laguntzak jasotzea, lanarekin bateraezinak badira.

m) Atzerrian lanean jardutea GKE baterako.

Hala ere, ukoa erditu edo adopzioa edo etxean hartzearen ondoko hemezortzi asteko epean egiten bada, zerrenden baremazio-xedeetarako soilik, epe horretan egindako zerbitzuak kontuan hartuko dira.

Uko egiteko arrazoi hauetakoren bat alegatzen duenak, hori jakinarazten duenetik, 5 asteguneko epea izango du dagozkion egiaztagiriak aurkezteko (hori horrela gertatzen dela egiaztatzeko). Horrez gain, ukoa eragin zuen arrazoa amaitu egin dela jakinaraztean, egiaztagiria aurkeztu beharko zaio Haurreskolak Partzuergoari (hori amaitu dela egiaztatzeko). Jakinarazpena uko egitearen arrazoa amaitu eta 5 asteguneko epean egin beharko da.

3.2.- Hauek izango dira zerrendatik kanporatzeko arrazoiak:

a) Adierazitako arrazoiak bestelako arrazoi bat izatea.

b) Epe barruan, arrazoitutako ukoan adierazitako arrazoiak ez egiaztatzea.



c) Izangaiak eskatutako ezaugarria, modalitatea, lurraldea eta abar betetzen dituen ordezkapena betetzeko deitzen bazaio, eta betetzera agertzen ez bada eta uko egiteko arrazoia aurkezten ez badu.

d) Izangaiak eskatutako ezaugarria, modalitatea, lurraldea eta abar betetzen dituen ordezkapena betetzeko deitzen bazaio, eta ordezkapena betetzeko egunean agertzen ez bada aurretik jakinarazi gabe, eta bigarren aldiz urtebeteko epean, nahiz eta gerora arrazoitu.

e) Aurkitzeko moduan ez egotea. Pertsona horrekin harremanetan jartzea ezinezkoa dela ulertuko da 3 aldiz telefonoz deitu eta telegrama bat bidali ondoren aste batean ez bada erantzunik jasotzen.

f) Indarrean dagoen kontratu bati uko egitea.

g) Diziplinako espediente baten bidez, hutsegite oso larria egiteagatik zigorra jaso izana edozein administrazio publikotan edota Partzuergoan bertan, baldin eta ez badago inpugnatuta.

h) Dagokion prozeduran egiaztatzen baldin bada hezitzaileak ohiko zereginak egiten jarraitzea galarazten dion ageriko ezgaitasun psiko-fisikoa duela. Kanporatze hau mantenduko da prozedurari hasiera eman zion egoera mantentzen den bitartean.

3.3.- Salbuespenak zerrendak erabiltzeko moduan:

Izangairen batek ordezkapen bat egin badu eta 10 egun baino lehen ordezkatu den langile hori bera ordezkatzeko beharra sortzen bada, ordezkapena egin zuen horrexek izango du lehentasuna, puntuazio handiagoko izangaiak egon arren.

Izangairen bat haurreskola batean ordezkapen bat egiten ari bada eta hor bertan beste ordezkapen bat egiteko beharra sortzen bada, ordezkapena egin zuen horrexek izango du lehentasuna, puntuazio handiagoko izangaiak egon arren.

3.4.- Berariazko beharrak:

Haurreskoletan sor daitezkeen berariazko beharrei edo hezkuntza-behar bereziei erantzuteko, horretarako berariazko deialdiak egin ahal izango dira, edota berariazko lan-poltsak egin, zerrenda orokorrean egonik, behar horiei erantzuteko gaitasuna ematen dieten titulazioa duten pertsonekin (zeinu-hizkuntza...). Berariazko lan-poltsetako hurrenkera zerrenda orokorrean duten puntuazioaren arabera izango da. Horretarako, hezitzaileek egoki irizten dituzten titulazio osagarriak aurkeztu ahal izango dituzte deialdi horietan.



4.- ORDEZKAPENEN KASUISTIKA:

Lanaldi partzialeko hezitzaileak dituen haurreskola batean, lanaldi osoko hezitzaile bat gutxienez egun betez ordezkatu behar bada eta epe jakin baterako (ordezkapena naiz bukatzen den ziur jakina bada), haurreskolako koordinatzaileak Partzuergoari zera eskatu ahal izango dio: lanaldi partzialeko hezitzaile batek lanaldi osoa egitea baimena duen hezitzaile ordezteko. Halaber, ordezko hezitzaile bat eskatu ahal izango da, beharrezkoa izanez gero, hutsik geratutako lanaldi partziala betetzeko. Egundorietan, lanaldi partzialeko hezitzailearen kontratua aldatu egingo da eta lanaldi osokoa bihurtuko da. Egoera horiek ez dira baliatuko baja medikoko edonolako ordezkapenak egiteko edota noiz amaituko den jakina ez den ordezkapenak egiteko. Egoera horiek ez dira urte bakoitzeko uztailaren 31tik harago luzatuko.

Ikasturtean zehar gutxienez 165 egun lan egin dituzten ordezkoek eskubide hauek izango dituzte: udako paga (abuztukoa) osorik, edo, bestela, dagokien zatia jasotzeko eskubidea, tarte horretan Gizarte Segurantzaren altan egoteko eskubidea eta zerbitzuen baremazioan 0,31 puntu jasotzekoa.

5.- PLAZA HUTSAK BEHIN-BEHINGOZ BETETZEA ETA BESTE KONTRATAZIO BATZUK

A.- Esleipen publiko bidez bete ahal izango dira, behin-behingo. hutsik dauden plazak.

Plaza hutsak behin-behingo (lan-eskaintza publikoa egin arte) betetzeko kontratazioak horretarako egindako esleipen-prozesu publikoetan bakarrik eskaini ahal izango dira.

B.- Esleipenen artean, haurreskola batean langile-beharrak daudenean:

Lehentasun-ordena honi jarraituko zaio:

B.1.- Suprimituak izan diren hezitzaileen artean, Partzuergoaren kontratazio-zerrendetan puntuazio handiena duenari eskainiko zaio; betiere, zerrendetan izen-ematean plaza huts horri dagokion lurralde historikoa eta lanaldia aukeratu baditu. Hezitzaile suprimituak hutsunea betetzea onartu beharko du ezinbestean.



B.2.- Zerrendan puntuazio handiena duen eta eskuragarri dagoen pertsonari eskainiko zaio.

Partzuergoak ahaleginak egingo ditu aurreikusitako plaza hutsak behar adinako aurrerapenarekin eskaintzeko, ahal den neurrian zerrendako ordena errespetatzeko.

C.- Aurretik plaza hutsa betetzen zuenak uko egin diolako, kontratazio bat eskaini behar denean:

C.1- Hitzarmenean araututako aurrez abisatzeko epearen barruan (15 egunekoa) uko egin bazaio plazari, B. puntuan ezarritako moduan jokatu da.

C.2- Plaza hutsa betetzen zuen pertsonak, hari uko egiteko, ez badu 15. egun lehenago abisatzeko epea bete, Partzuergoak zuzenean jardun dezake B.2 puntuan ezarritako moduan.

D.- Hezitzaileek, zerrendetan sartzeko eskatzen den titulu akademikorik ez badute eta landa-eremuetako Hezkuntza eta Asistentzi Zerbitzuko (SEA) homologazio-ikastaroaren ziurtagiria bakarrik badute, plaza hauek bakarrik bete ahal izango dituzte: Landa Garapenerako 2R Zonakotzat hartutako udalerrietako SEAren plazetara. Zona horien ezaugarriak Europako Batzordearen 2000. urteko martxoaren 14ko erabakian daude zehaztuta (2000. urteko apirilaren 5ean Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Maite Larrañaga Orbea
Partzuergoko Idazkaria

Jose Antonio Campos Granados
Partzuergoko Lehendakaria